EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
*Komunikaziorako Zuzendaritza*

PRESIDENCIA
*Dirección de Comunicación*

XII. Legegintzaldia - XII Legislatura
2020-2024

# GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

# CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilak 17**

**Vitoria-Gasteiz, 17 de enero de 2023**

Navarra, 2 – 01007 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 017 972 – e-mail: prentsa@euskadi.eus

**Lehendakaritza**

## JAURLARITZAK 1,2 MILIOI EUROREKIN FINANTZATUKO DU I+G-KO ZEHARKAKO TRAKZIO PROIEKTU KOLABORATIBOEN DISEINUA

- **Gobernu Kontseiluak Zahartze Osasuntsuaren, Mugikortasun Elektrikoaren eta Ekonomia Zirkularraren arloko Trakzio Proiektuetarako laguntza-programaren 2023ko deialdia onartu du.**
- **Trakzio proiektuak erakunde eskatzaileek aurkeztutako proiektuen integrazioaren emaitza izan daitezke.**

Gobernu Kontseiluak, 2023ko ekitaldirako, Ikerketa eta Garapeneko Zeharkako trakzio proiektu kolaboratiboak diseinatzeko laguntza-programaren deialdia onartu du, Euskadi 2030 ZTBPren Zeharkako Trakzio Ekimenen esparruan.

Deialdiko laguntzak finantzatzeko 1.200.000 euro bideratuko dira, Lehendakaritzako Berrikuntza Funtsetik, eta kopuru hori zati berdinetan banatuko da zeharkako trakzio ekimenei dagozkien eta diruz lagunduko diren hiru lerroen artean:

a) Zahartze Osasuntsua: 400.000 euro.
b) Mugikortasun Elektrikoa: 400.000 euro.
c) Ekonomia Zirkularra: 400.000 euro.

Berritasun gisa, laguntzak, Trakzio proiektuak diseinatzeko fasea bakarrik finantzatzera bideratuta daude, eta, gainera, aurkezten diren hainbat eskabide integratzearen emaitza izan daitezke.

Laguntzak gehienez ere 25.000 eurokoak izango dira eskaera bakoitzeko, eta mota horretako proiektuak gidatzeko gaitasuna duten erakundeei zuzenduko zaizkie, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragile zientifiko-teknologikoak, klusterren antolakunde dinamizatzaileak, enpresak, elkarte edo fundazio gisa eratutako irabazi-asmorik gabeko erakundeak eta erakunde eta sozietate publikoak barne.

Ebaluatu ahal izateko eta dirulaguntza jaso ahal izateko, aurkezten diren proiektuek gutxieneko baldintza batzuk bete beharko dituzte beren gaikako irismenari, guztizko aurrekontuari eta partehartzen duten erakundeen gutxieneko kopuruari dagokienez, laguntza programak arautzen duen urriaren 11-ko 118/2022ko dekretuan agertzen den bezala.

Eskabideak aurkezteko epea deialdiaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, 2023ko apirilaren 21ean amaituz.

**Segurtasuna**

## GOBERNU KONTSEILUAK ARABAKO ETA BIZKAIKO ZORTZI ENPRESAREN KANPOKO LARRIALDIETAKO PLANAK ONARTU DITU

- **Babes zibileko plan horien helburua da erantzun hobea antolatzea gerta litezkeen eta enpresen kanpoaldean eragina izan dezaketen istripuen aurrean**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu ditu BAHÍA DE BIZKAIA GAS SL (Zierbena), DEKITRA SA (Lantaron), ESERGUI SA (Zierbena), GENERAL QUÍMICA SAU (Lantaron), MAXAM OUTDOORS SA (Galdakao), ACEROS INOXIDABLES OLARRA (Loiu), REPSOL BUTANO SA (Santurtzi) eta WEYLCHEM BILBAO SLU (Zierbena) enpresen kanpoko larrialdietako planak. Kanpoko larrialdietako planak babes zibileko plan bereziak dira eta instalazio horietan gerta litezkeen eta enpresaren kanpoaldean eragina izan dezaketen istripuen aurrean kanpotik erantzuna antolatzea dute helburu.

Era horretako planak SEVESO izenez ezagutzen diren Europako zuzentarauen esparruan egiten dira, eta enpresek barneko larrialdietako planetan aurreikusitako neurriak osatzen dituzte.

Aipatutako plan horiek lantzeko prozedurak erreferentziako araudian ezarritakoari jarraitu dio, hau da, aldeko iritzia jaso zuten Euskadiko Babes Zibilerako Batzordeak 2021eko abenduaren 14an egin zuen ohiko batzarrean, bai eta Babes Zibilerako Kontseilu Nazionalaren oniritzia ere 2022ko urriaren 20an.

## Lana eta Enplegua

### GOBERNU KONTSEILUAK BAIMENDU DU 565 MILIOIKO GASTUA ERABILTZEA 2023AN LANBIDEREN PRESTAZIOETARAKO

Idoia Mendia Lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak baimendu du gaur 2023rako 565 milioi euroko gastua xedatzea, Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta, Etxebizitzarako Prestazio Osagarria eta Bizitzeko Gutxieneko Diru-Sarrera jasotzeko eskubidea duten pertsonen diru-sarrerak bermatzeko, horiek baitira Lanbidek leihatila bakarrean ematen dituen prestazioen multzoa.

Zenbateko osoa % 20 gehiago da 2022an kontzeptu berberengatik gauzatutakoaren aldean (467,1 milioi euro); izan ere, enpleguaren hobekuntza DSBEren titular gutxiagotan ere islatzen da, Lanbidek funtzio hori bere gain hartu zuenetik izan den zifra baxuenean, baina urtarriletik aurrera % 8,5eko igoera aplikatzen da, eta apiriletik aurrera, abenduan onartutako legea indarrean sartzearen ondorioz, osagarriak hobetuko dira adingabeak eta pentsiodunak dauden kasuetan, eta egoera ahulean dauden beste pertsona batzuei sarbidea errazten zaie.

Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren kasuan, urte honetarako aurreikusitako zenbatekoa 312 milioi eurokoa da, 2022an enplegatutakoak baino hamar gehiago, eta honela banatzen dira: Araban 56,38 milioi, Gipuzkoan 70,77 milioi eta Bizkaian 184,83 milioi.

Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriari dagokionez, aurreikuspen osoa 80 milioi eurokoa da: 14,51 milioi Araban, 19,63 Gipuzkoan eta 45,84 Bizkaian.

Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerari dagokionez, Gobernuak 173 milioi euroko gastua baimendu du 2023rako (2022an 87,5 milioi izan ziren, ekitaldi horren erdiari zegozkionak, ordainketak ekainera arte ez baitzituen Lanbidek bere gain hartu). Aurrekontu hori honela banatuko da: Araban 34,19 milioi, Gipuzkoan 42,55 milioi eta Bizkaian 96,24.

Prestazio multzo hori hilero ordaintzen denez, urte osoko zenbatekoa baimendu da, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak, hura kudeatzeko eta ordaintzeko ardura duen organoak, finantzaketarako baliabide ekonomikoak eskura dituela bermatzeko.

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko 18/2008 Legean jasota daude, eta Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera, berriz, 19/2021 Legean. Apiriletik aurrera, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legea aplikatuko da.

**Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena**

## LABRAZAKO PARKE EOLIKOAK ESKURATU DU INGURUMEN INPAKTUAREN ADIERAZPENA, ETA AZAZETAKOA BEREHALA EGONGO DA

- **Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburu Arantxa Tapiak uste du Labrazako proiektu eolikoa 2024aren amaieran gauzatu ahal izango dela eta Azazetakoa 2025ean**
- **Euskadiko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialak (LPS) beste urrats bat eman du eta Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen eskutan dago dagoeneko**
- **Une honetan, Euskadik kontsumitzen duen energiaren % 10 sortzen du, eta helburua da 2030erako % 15 sortzea, iturri berriztagarriak erabiliz**

Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuak Gobernu Kontseiluari jakinarazi dio Labrazako Parke Eolikoak Ingurumen Inpaktuaren Adierazpena jaso duela eta Azazetako proiektuari dagokiona berehala egongo dela.

Arabako Oion udalerrian kokatuko den Labrazako Parke Eolikoak 8 aerosorgailu izango ditu eta 40MW energia sortzeko ahalmena izango du. Azpiegitura Aixeindarrek sustatzen du. Bi erkidego ezberdinei, Euskadiri eta Nafarroari, eragiten dien proiektua denez, ministerioen tramitazioa behar izan du, eta aldeko txostena jaso berri du

Azazetako Parke Eolikoak ere 8 aerosorgailu aurreikusten ditu eta 40MW energia sortzeko gaitasuna izango du. Alegría-Dulantzi, Iruraiz Gauna, Donemiliaga, Arraia Maeztu eta Bernedo udalerrietan kokatuko da, Araban. Aixeindar da kasu honetan ere sustatzailea.

Eusko Jaurlaritza Azazetako instalazioari dagokion ingurumen-inpaktuaren adierazpena amaitzen ari da une honetan. Tramitazioa osatu egingo da Foru Aldundiak Plan Berezia onartzen duenean. Ingurumen-inpaktuaren adierazpenak kautelazko neurriak propostzen ditu, baita beste neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaile batzuk ere, eta horiek kontuan hartu beharko dira egikaritze-proiektua idazterakoan.

Bi kasuetan, proiektua baimendu aurreko ingurumen-ebaluazioaren prozedurak barne hartu ditu araudian ezarritako jendaurreko informazioko eta kontsultako nahitaezko izapideak, bai eta eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako hainbat kontsulta ere.

Une honetan, Euskadik kontsumitzen duen energiaren % 10 sortzen du, eta 2030erako % 15 sortzea da helburua, iturri berriztagarriak erabiliz.

**Energia Berriztagarrien LPS**

Era berean, Arantxa Tapiak azaldu duenez, Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala (LPS) Euskadiko lurraldea antolatzeko tresna bat da, eta ingurumena edo kultura bezalako balio babesgarriak hartzen ditu kontuan.

EAEk, une honetan, energia berriztagarrien sorkuntzaren ehuneko txikia du, guztizko energia-kontsumoaren aldean; beraz, hirigintza-eremuan energia berriztagarrien ezarpena arinduko duten estrategiak garatzera behartuta gaude, hori baita energia berriztagarrien ohiko oztopoetako bat.

LPak, funtsean, lurzoru urbanizaezinean iturri berriztagarrietatik energia elektrikoa sortzeko instalazioak ezartzea zehazten du, erabilera eta banaketa arautu gabe. Ingurumen-baldintzatzaileak eta -betekizunak beren araudi zorrotzean ezarritakoak edonola ere kasu guztietan.

Hori guztia kontuan hartuta, LPSak instalazio eoliko eta fotovoltaiko handietarako egokiak diren lurralde- eta hirigintza-ezarpena errazten duten eremuak hautatzen ditu, eta horrek nabarmen arintzen ditu izapideak. Hautatutako eremu horiek Euskadiren potentzial berriztagarria ahalik eta gehien aprobetxatzeko premisaren pean definitzen dira, Euskadiren natura-, paisaia- eta kultura-ondarea zaintzearekin bateragarria izanik.

Horrek ez du esan nahi adierazitako eremu horiek guztiak okupatuko direnik; izan ere, alde batetik, ekimen pribatuaren mende dago sare elektrikorako sarbidea eta konexioa, eta ez da ahaztu behar beti bermatu eta bete behar direla ingurumeneko, arkeologiako, lurzoruaren erabilerako eta abarreko gainerako administrazio-eskakizunak. Era berean, eremu horiek hautatzeak ez du esan nahi, a priori, eremu horietatik kanpo instalazio handiak ezar daitezkeenik. Kasu horretan, zuzeneko ezarpenik ez dutenez, gainera, hirigintzari eta lurralde-antolamenduari buruzko legerian aurreikusitako eskakizunak bete beharko dira.

**LPS behin betiko onartzeko faseak**

| | |
|---|---|
| **LPS hasierako bertsioa egitea** | LPS **HASIERAKO** bertsioa egitea |
| **LPSaren eta ingurumen-azterlan estrategikoaren HASIERAKO onarpena** | Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen hasierako txostena |
| | Hasierako bertsioa onartzeko aldaketak |
| **LPSaren eta Ingurumen-Azterlan Estrategikoaren BEHIN BEHINEKO onarpena** | Eragindako administrazio publikoei eta interesdunei entzutea/kontsulta egitea |
| | Jendaurreko informazioa |
| | Hirugarrenez herritarren parte-hartzea |

| | |
|---|---|
| | Kontsulten analisia eta erantzunak eta informazio publikoa |
| | LPSaren eta IAEren **BEHIN-BEHINEKO** bertsioak onesteko prestatzea |
| **Energia Berriztagarrien LPSaren BEHIN BETIKO betiko bertsioa egitea** | Ingurumen Adierazpen Estrategikoa egitea eta EHAAn argitaratzea |
| | Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen txostena, behin-behineko onarpenari buruzkoa |
| | **BEHIN BETIKO** bertsioa egitea |
| **Euskadiko Lurralde Plan Sektorialaren eta Berriztagarrien BEHIN BETIKO onarpena** | Araua izapidetzeko nahitaezko txostenak (Ingurumen Aholku Batzordea, Kontrol Ekonomikoko Bulegoa, Generoa, Hizkuntzaren normalizazioa, Aholku Batzorde Juridikoa, Jasangarritasun energetikoa) |
| | Lurralde Plangintza Sailaren nahitaezko txostena |
| | Gobernu Kontseilura bidaltzea |
| | EHAAn eta ALHAOn eta 2 egunkaritan argitaratzea |

## Izapidetzen ari diren proiektu berriztagarriak

**IZAPIDETZEN ARI DIREN PARKE EOLIKO HANDIAK**

| LOCALIZACIÓN | PROMOTOR | TRAMITACIÓN | Potencia MW |
|---|---|---|---|
| **PE “LABRAZA”** | Aixeindar | Ingurugiro-inpaktuare Adierazpena | 40 |
| **PE “AZAZETA”** (Alegria-Dulantzi , Iruraiz Gauna, SanMillán /Donemiliaga , Arraia-Maeztu, Bernedo) | Aixeindar | Ingurumen-ebaluazioaren azterketa teknikoa. Kontsulten 2. fasea | 40 |
| **PEMarino“GEROA”**(offshoreArmintza) | Itsas Wind S.L. | Ministerioak tramitatuko du | 45 |
| **PE “CANTOBLANCO”** (Añana, Ribera Alta) | Euskal Haizie | Dokumentazio teknikoa aurkeztuta. | 49 |
| **PE “ARTZENTALES-SOPUERTA”** (Sopuerta, Artzentales, Galdames, Muskiz) | Euskal Haizie | Konkurrentzia erresoluzioa eginda. Proiektuaren eta Ingurumen-Inpaktuaren txostenaren zain | 50 |
| **PE “LAS LLANAS”** **(**Gordexola, Zalla, Gueñes) | Euskal Haizie, S.L. | Konkurrentzia erresoluzioa datozen egunotan publikatuko da. | 36,6 |
| **PE “LARRAGORRI”** (ver “*Jesuri”)* (Orozko, Laudio) | Grupo Capital Energy | Konkurrentzia erresoluzioa eginda. | 22,5 |
| **PE PIASPE** (Azpeitia-Errezil-Zestoa) | Desarrollo Renovables Iberia PI SLU | Konkurrentzia erresoluzioaren zain | 33 |
| **PE “TREKUTZ”** (Urretxu, Antzuola) | Grupo Cildal Energy | Dokumentazioa aurkeztekotan, aurretiko izapidetze administratiboa | 12 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | abiatzeko | |
| **PE "BURUZAI"** (Azkoitia, Zumarraga, Urretxu) | GREEN CAPITAL DEVELOPMENT 65, S.L. | Dokumentazioa aurkeztekotan, aurretiko izapidetze administratiboa abiatzeko | 18 |
| **PE "EZKELZU"** (Zizurkil, Usurbil, Donostia) | GREEN CAPITAL DEVELOPMENT XLIV, S.L. | Dokumentazioa aurkeztekotan, aurretiko izapidetze administratiboa abiatzeko | 18 |
| **PE "KARAKATE"** (Soraluze, Elgoibar) | GREEN CAPITAL DEVELOPMENT 135, S.L. | Dokumentazioa aurkeztekotan, aurretiko izapidetze administratiboa abiatzeko | 9,6 |
| **PE "KASTILLO"** (Legutio) | Grupo Capital Energy | Dokumentazio teknikoa aurkezteko luzapena 2023ko otsailaren 18rarte | 22,5 |
| **hPE "MIRITXA"** (Arratzu-Ubarrundia, Elburgo, Barrundia, Leintz-Gatzaga) | Grupo Capital Energy | Dokumentazio teknikoa aurkezteko luzapena 2023ko otsailaren 26rarte | 27 |
| **PE LA MINORIA** | ALEIXENDAR | Konkurrentzia fasean | 40 |

**IZAPIDETZEN ARI DIREN PARKE FOTOVOLTAIKO HANDIAK**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **FV "VITORIA-SOLAR 1"** (Gasteiz, Arrazua-Ubarrundia) | Indarberri | Informazio publikoa amaituta. Proiektuaren errebisio kontsulta fasean | 50 |
| **FV "VITORIA-SOLAR 2"** (Gasteiz, Elburgo, Barrundia) | Indarberri | Informazio publikoa amaituta. Proiektuaren errebisio kontsulta fasean | 50 |
| **FV LAMINORIA** | ALEXEINDAR | Informazio publikoa amaituta. Proiektuaren errebisio kontsulta fasean | 40 |

**Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak**

## EUSKO JAURLARITZAK, 4,79 MILIOI EURoren BIDEZ, HIRUGARREN SEKTOREAREN EKINTZAK SUSTATU DITU PERTSONA ETA FAMILIEKIN GIZARTE-ARLOAN ESKU HARTZEKO EREMUAN

Beatriz Artolazabal Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak, gaur, 4,79 milioi euroko partida onartu du, hirugarren sektoreak, 2023an, gizartean esku hartzeko eremuan egingo dituen jarduerak sustatzeko.

Eusko Jaurlaritzak eremu horretan eskaintzen dituen pizgarri ekonomikoak abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuak arautzen ditu, eta haien xedea da hirugarren sektoreko erakundeek pertsona ororen autonomia pertsonala eta integrazio komunitarioa sustatzeko eta babesteko egiten dituzten jarduerak finantzatzen laguntzea.

Gizarte-zerbitzuez gainera, ekintza-mota horiek gizarte-inklusioaren eremuan, familiaren babesaren eta haur eta nerabeentzako arretaren eta babesaren eremuan kokatzen dira. Era berean, etorkinen integraziora eta, oro har, kulturartekotasunera, adinekoen, mendekotasun-egoeran daudenen eta desgaitasunen bat dutenen arreta eta babesera eta askatasun eta aniztasun afektibo-sexualera bideratzen dira.

Dirulaguntzen lehen lerroak gizartean esku hartzeko jarduerak aurreikusten ditu pertsona, familia eta erkidegoekin; alegia, pertsonen autonomia pertsonala eta integrazio komunitarioa sustatzeko eta babesteko jarduerak, nagusiki esperimentazio- edo berrikuntza-osagai bat dutena. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak, dirulaguntzen lerro horretara, 3.743.480 euro bideratuko ditu, 2023an.

Era berean, bigarren lerroa gizartean esku hartzeko ekintza boluntarioa eta elkarteen parte-hartzea sendotzeko jarduerak diruz laguntzera bideratuko da. Atal horren barruan, ekintza boluntarioa areagotzeko, gizartean esku hartzeko eremuan elkartze-partaidetza garatzeko eta, bereziki, nagusiki eremu autonomikokoak diren erakunde, sare edo federazioak eraikitzeko eta hobetzeko jarduéretarako finantzaketa jaso ahalko dute, gizartean esku hartzeko erakundeen bidez. Kapitulu honek 599.000 euroko zuzkidura du.

Azkenik, dirulaguntzen hirugarren lerro bat gizartean esku hartzeko ezagutza kudeatzeko jarduerak sustatzera bideratzen da. Lerro horrek 450.000 euroko zuzkidura du, eta, hartan, gizartean esku hartzeko ezagutza baliagarria ekoizteko eta eskuratzeko jarduerak oinarritzen dira, hala nola: prestakuntza-programak, ikerketa-proiektuak, argitalpenak prestatu eta zabaltzeko lana, ikastaroak eta mintegiak.

Laguntzak datorren urtarrilaren 26tik aurrera eskatu ahalko dira.

**Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak**

## EUSKO JAURLARITZAK JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO PSIKOLOGOEN TALDEA HANDITU DU, LAU DOTAZIOREKIN

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Sailaren menpeko Justizia Administrazioko zuzendaritzan psikologo izateko lau lanpostu sortzeko baimena eman du gaur Gobernu Kontseiluak. Horrela, talde psikosoziala indartuta aterako da.

Izan ere, haurrak eta nerabeak indarkeriatik babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa indarrean sartzeak eragina du Justizia Administrazioko talde psikosozialetan. Aurrekontu-zuzkidurari buruzko Lege Organikoan honako hau ezartzen da: “Estatuak eta autonomia-erkidegoek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, beharrezko baliabide pertsonal eta materialak eman beharko dizkiete epaitegiei eta auzitegiei, legezko betebehar berriak egoki betetzeko. Era berean, Lege Medikuntzako Institutuei, Biktimei Laguntzeko Bulegoei, aditu- edo laguntza-aholkularitza ematen duten organo teknikoei eta gizarte-zerbitzuei Lege honetan aurreikusitako helburuak eta betebeharrak behar bezala betetzeko beharrezkoak diren baliabide pertsonal eta materialak eman beharko zaizkie”.

Gainera, azken urteetan beharrezkoa izan da Justizia Administrazioko talde psikosozialetan langileak kontratatzea. Horregatik guztiagatik, Gobernuak lau lanpostu berri sortu ditu lan-kontratuko langile gisa: bi Bizkaian, bat Gipuzkoan eta bestea Araban.

Plantilla handitze horrek Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren aldeko txostena du, eta hari dagokio langileen plantilletan dauden egiturazko beharrak aztertzea.

**Kultura eta Hizkuntza Politika**

# EUSKO JAURLARITZAK FORU-ALDUNDIEI BANATUKO DIZKIEN MRR FUNTSEN AKORDIOA ONARTU DU GAUR

Estatuko Administrazio Orokorretik jasotzen diren eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barnean dauden kultura-industria errebalorizatzeari dagozkion funtsak foru-aldundiei banatzeko akordioa onartu du gaurko Gobernu Kontseiluak.

Funtsak "Next GenerationEU" programaren Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismotik (MRR) datoz. Programa horren helburua COVID-19aren pandemiak eragindako berehalako kalte ekonomiko eta sozialak konpontzen laguntzea da. Espainiako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planak bere konpromisoen artean jasotzen du Kultura Industriaren errebalorizazioa. Osagai horretan aurreikusitako laguntzetako bi honako hauek dira: “Hiriguneak ez diren eremuetan kultura-eskaintza zabaltzeko eta dibersifikatzeko laguntzak” eta “Era guztietako artxibo-sistemak, inbentarioak eta ondare historikoaren erregistroak digitalizatzea, edukiera handitzea eta elkarreragingarritasuna, ikus-entzunezkoa barne”.

Hiri-eremuetatik kanpoko kultura-eskaintza handitzeko eta dibertsifikatzeko laguntzei dagokienez, dokumentu gidariak jasotzen du laguntzak foru-aldundiek kudeatu ahal izango dituztela. Horrela, guztira, 391.139 euro transferituko zaizkie Arabako (108.187 euro), Bizkaiko (174.477 euro) eta Gipuzkoako (108.474 euro) foru-aldundiei.

Bestalde, kultura zerbitzu nagusiak digitalizatzeko eta bultzatzeko laguntzei dagokienez, hiru lurralde historikoetako foru-aldundiek 27.483 euro jasoko dituzte mota guztietako artxibo-sistemen, ondare historikoaren inbentarioen eta erregistroen (ikus-entzunezkoena barne) digitalizaziorako, ahalmena handitzeko eta elkarreragingarritasunerako. 9.161 euro izango dira erakunde bakoitzarentzat.

HAKOBAren urtarrilak 9ko bileran erabaki zen funts horiek Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiei transferitzea eta orain Gobernu Kontseiluak akordio hori onartu du. Eusko Jaurlaritzako, aldundietako eta udaletako kultura-arloko arduradunak biltzen dituen organoa da HAKOBA.

**Presidencia**

# EL GOBIERNO FINANCIARÁ CON 1,2 MILLONES DE EUROS EL DISEÑO DE PROYECTOS TRACTORES TRANSVERSALES COLABORATIVOS DE I+D

- **El Consejo de Gobierno ha aprobado la convocatoria 2023 del programa de ayudas a Proyectos Tractores en Envejecimiento Saludable, Movilidad Eléctrica y Economía Circular**
- **Los Proyectos Tractores podrán ser el resultado de la integración de los proyectos presentados por las entidades solicitantes**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la convocatoria, para el ejercicio 2023, del Programa de ayudas al diseño de Proyectos Tractores Transversales Colaborativos de Investigación y Desarrollo, en el marco de las Iniciativas Tractoras Transversales del PCTI Euskadi 2030.

Para financiar estas ayudas se destinará un total de 1,2 millones de euros procedentes del Fondo de Innovación de Lehendakaritza, que se distribuirán a partes iguales entre las tres líneas subvencionables correspondientes a las Iniciativas Tractoras Transversales:

a) Envejecimiento Saludable: 400.000 euros.
b) Movilidad Eléctrica: 400.000 euros.
c) Economía Circular: 400.000 euros.

Como novedad, las ayudas van destinadas a financiar únicamente la fase de diseño de los Proyectos Tractores, que, además, podrán ser el resultado de la integración de diferentes solicitudes que se presenten.

Las ayudas tendrán una cuantía máxima de 25.000 euros por solicitud y se dirigen a aquellas entidades con capacidad para liderar este tipo de proyectos, incluidos los agentes científicos-tecnológicos de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación, las organizaciones dinamizadoras de clústeres, las empresas, las entidades sin ánimo de lucro constituidas como asociaciones o fundaciones, y las entidades y sociedades públicas.

Los proyectos que se presenten deberán cumplir unos requisitos mínimos relativos a su alcance temático, presupuesto total y número mínimo de entidades participantes, según se recoge en el Decreto 118/2022, de 11 de octubre, por el que se regula el Programa de ayudas.

El plazo de presentación de solicitudes se iniciará el día siguiente a la publicación de la resolución de la convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco y finalizará el día 21 de abril de 2023.

**Seguridad**

## EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA LOS PLANES DE EMERGENCIA EXTERIOR DE OCHO EMPRESAS DE ARABA Y BIZKAIA

- **El objetivo de estos planes de protección civil es articular la mejor respuesta a posibles hipótesis accidentales cuya repercusión conlleve una afección exterior a las propias empresas**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy los planes de Emergencia Exterior de las empresas BAHÍA DE BIZKAIA GAS, S.L. (Zierbena), DEKITRA S.A. (Lantaron), ESERGUI S.A. (Zierbena), GENERAL QUÍMICA SAU (Lantarón), MAXAM OUTDOORS S.A. (Galdakao), ACEROS INOXIDABLES OLARRA (Loiu), REPSOL BUTANO S.A. (Santurtzi) y WEYLCHEM BILBAO SLU (Zierbena). Los planes de emergencia exterior son planes de protección civil de carácter especial y tienen como finalidad articular la respuesta externa ante determinadas hipótesis accidentales que puedan producirse en dichas instalaciones con la consiguiente afección exterior a la propia empresa.

Este tipo de planes, encuadrados en las directivas europeas denominadas coloquialmente SEVESO, vienen a completar las medidas que las empresas han previsto en su plan de emergencia interior.

El procedimiento de elaboración de los planes citados ha seguido lo estipulado en la normativa de referencia, es decir, fueron informados favorablemente por la Comisión de Protección Civil de Euskadi en sesión ordinaria del 14 de diciembre del 2021 y recibieron, igualmente, el informe favorable del Consejo Nacional de Protección Civil el 20 de octubre de 2022.

**Trabajo y Empleo**

## EL CONSEJO DE GOBIERNO AUTORIZA LA DISPOSICIÓN DE GASTO DE 565 MILLONES PARA LAS PRESTACIONES DE LANBIDE EN 2023

A propuesta de la Vicelehendakari y consejera de Trabajo y Empleo, Idoia Mendia, el Consejo de Gobierno ha autorizado hoy la disposición de gasto de 565 millones de euros para este año 2023 a fin de garantizar los ingresos de las personas que tienen derecho a percibir la Renta de Garantía de Ingresos, la Prestación Complementaria de Vivienda y el Ingreso Mínimo Vital, que son el conjunto de las prestaciones que realiza Lanbide en ventanilla única.

La cuantía total supone un 20% más con respecto a lo ejecutado en 2022 por los mismos conceptos (467,1 millones de euros) porque, a pesar de que la mejoría en el empleo también se refleja en un menor número de titulares de RGI, en la cifra más baja desde que Lanbide asumió esta función, desde enero se aplica una subida del 8,5%, y desde abril, con la entrada en vigor de la ley aprobada en diciembre, se mejoran los complementos en los casos en que hay menores y pensionistas y se facilita el acceso a otras personas en distintas situaciones vulnerables.

En el caso de la Renta de Garantía de Ingresos, la cuantía prevista para este año asciende a 312 millones de euros, diez más que los empleados en 2022, que se distribuyen de la siguiente manera: Araba 56,38 millones, Gipuzkoa 70,77 millones y Bizkaia 184,83 millones.

En lo que respecta a la Prestación Complementaria de Vivienda, la previsión total es de 80 millones de euros, 14,51 millones en el caso de Araba, 19,63 en Gipuzkoa y 45,84 en Bizkaia.

En cuanto al Ingreso Mínimo Vital, el Ejecutivo ha autorizado un gasto en 2023 de 173 millones de euros, (en 2022 fueron 87,5 millones correspondientes a la mitad de ese ejercicio, ya que hasta el mes de junio Lanbide no se hizo cargo de los pagos). Este presupuesto se distribuirá de la siguiente manera: Araba 34,19 millones, Gipuzkoa 42,55 millones y Bizkaia 96,24.

Puesto que el pago de este conjunto de prestaciones es mensual, se autoriza el importe de todo el año para garantizar que el Servicio Vasco de Empleo Lanbide, órgano encargado de su gestión y pago, disponga ya de los recursos económicos destinados a su financiación.

La Renta de Garantía de Ingresos y la Prestación Complementaria de Vivienda están recogidas en la Ley 18/2008 para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social, mientras que el Ingreso Mínimo Vital queda recogido en la Ley 19/2021. Desde abril será de aplicación la Ley 14/2022, de 22 de diciembre, del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión.

**Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente**

## LA DECLARACIÓN DE IMPACTO AMBIENTAL DEL PARQUE EÓLICO DE LABRAZA ES UN HECHO, Y LA DE AZACETA ES INMINENTE

- **La Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, Arantxa Tapia, ha estimado que el proyecto eólico en Labraza podrá ejecutarse a finales del 2024 y el de Azaceta en el 2025**
- **El Plan Territorial Sectorial (PTS) de Energías Renovables de Euskadi da un paso más al someterse al informe de la Comisión de Ordenación del Territorio**
- **En este momento, Euskadi genera un 10% de la energía que consume y el objetivo es llegar al 15% en el 2030, usando para ello fuentes renovables**

La Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, Arantxa Tapia, ha notificado hoy al Consejo de Gobierno que la Declaración de Impacto Ambiental del Parque Eólico de Labraza es un hecho, y que la del proyecto de Azaceta es inminente.

El Parque Eólico de Labraza, situado en el municipio de Oion, Álava, prevé 8 aerogeneradores y va a tener una capacidad de generación de 40 MW. Está promovido por Aixeindar. Al ser un proyecto que afecta a dos comunidades diferentes, Euskadi y Navarra, ha precisado tramitación ministerial que ha concluido favorablemente.
El Parque Eólico de Azaceta, con 8 generadores y una capacidad de generación de 40MW está situado en los municipios de Alegría-Dulantzi, Iruraiz Gauna, San Millán/Donemiliaga, Arraia Maeztu y Bernedo. Álava. La promotora es Aixeindar.

El Gobierno Vasco está ultimando actualmente la Declaración de Impacto Ambiental de la instalación de Azaceta. La tramitación se completará con la aprobación del Plan Especial por parte de la Diputación Foral. La DIA plantea medidas cautelares, así como otras medidas protectoras, correctoras y compensatorias, que deberán ser tenidas en cuenta en la redacción del proyecto de ejecución.

En ambos casos el procedimiento de evaluación ambiental previa a la autorización del proyecto ha incluido los preceptivos trámites de información pública y consulta establecidos en la normativa, así como diversas consultas a las administraciones públicas afectadas y a las personas interesadas.

A día de hoy, Euskadi genera un 10% de la energía que consume y el objetivo es llegar al 15% para el 2030, usando para ello fuentes renovables.

## PTS Energías Renovables

Asimismo, Arantxa Tapia, ha explicado que el Plan Territorial Sectorial de Energías Renovables (PTS) es un instrumento para la ordenación del territorio de Euskadi, que tiene en cuenta valores dignos de protección, como el medioambiental o el cultural.

La CAPV tiene en estos momentos un porcentaje exiguo de generación de energías renovables frente a su consumo de energía total, por lo que estamos obligados a desarrollar estrategias que agilicen la implantación de energías renovables en el ámbito urbanístico, uno de los escollos habituales de las mismas.

El PTS concreta fundamentalmente la implantación de instalaciones de generación de energía eléctrica a partir de fuentes renovables en suelo no urbanizable, no regulando su uso ni su distribución. Las condicionantes y los requisitos de índole medioambiental continúan siendo los establecidos por su estricta reglamentación.

Teniendo en cuenta todo esto, el PTS selecciona zonas que facilitan una implantación territorial y urbanística apropiadas a las grandes instalaciones eólicas y fotovoltaicas, lo que agiliza notablemente las tramitaciones. Estas zonas seleccionadas se definen bajo la premisa de lograr el máximo aprovechamiento del potencial renovable de Euskadi, compatible con la preservación de su patrimonio natural, paisajístico y cultural.

Esto no significa que se vayan a ocupar todas esas zonas señaladas, dado que, por un lado, se depende de la iniciativa privada, por otro, está el acceso y conexión a la red eléctrica, sin olvidar que se deben garantizar y satisfacer siempre el resto de requerimientos administrativos medioambientales, arqueológicos, usos del suelo, etc. Tampoco la selección de esas zonas, excluye, a priori, que puedan implantarse grandes instalaciones fuera de las mismas; en dicho caso, al carecer de implantación directa, precisarán, además, cumplimentar los requerimientos previstos en la legislación urbanística y de ordenación territorial.

## Fases para la aprobación definitiva del PTS

| | |
|---|---|
| **Elaboración versión INICIAL del PTS** | Elaboración versión **INICIAL** PTS |
| **Aprobación INICIAL del PTS e inicial del Estudio Ambiental Estratégico** | Informe INICIAL de la Comisión Ordenación del Territorio |
| | Modificaciones para pasar a aprobación versión inicial PTS |
| **Aprobación PROVISIONAL del PTS y del Est.** | Audiencia/Consulta a Administraciones Públicas y resto de agentes interesados afectados |

| | |
|---|---|
| **Ambiental Estratégico** | Información pública |
| | Tercera participación ciudadana |
| | Análisis y respuestas a las consultas e información pública |
| | Elaboración para aprobación versiones **PROVISIONALES** del PTS y del EAE |
| **Elaboración versión DEFINITIVA del PTS de Energías Renovables** | Emisión de la Declaración Ambiental Estratégica y publicación en BOPV |
| | Informe de la Comisión de Ordenación del Territorio de la aprobación PROVISIONAL |
| | Elaboración de la versión **DEFINITIVA** |
| **Aprobación definitiva del PTS de las EERR de Euskadi** | Informes preceptivos tramitación de norma (Consejo Asesor Medio Ambiente, Oficina Control Económico, Género, Norm. Lingüística, Comisión Juridica Asesora, Sostenibilidad Energética) |
| | Informe preceptivo Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transporte |
| | Remisión al Consejo de Gobierno |
| | Publicación en BOPV, 3 BOTH y 2 periódicos |

## Proyectos renovables en tramitación

**PARQUES EÓLICOS GRANDES EN TRAMITACIÓN**

| LOCALIZACIÓN | PROMOTOR | TRAMITACIÓN | Potencia MW |
|---|---|---|---|
| **PE "LABRAZA"** | Aixeindar | DÍA favorable | 40 |
| **PE "AZAZETA"** (Alegria-Dulantzi , Iruraiz Gauna, San Millán /Donemiliaga , Arraia-Maeztu, Bernedo) | Aixeindar | Estudio técnico de evaluación ambiental. 2ª fase de consultas | 40 |
| **PEMarino"GEROA"**(offshoreArmintza) | Itsas Wind S.L. | Tramitará el Ministerio | 45 |
| **PE "CANTOBLANCO"** (Añana, Ribera Alta) | Euskal Haizie | Presentada documentación técnica. | 49 |
| **PE "ARTZENTALES-SOPUERTA"** (Sopuerta, Artzentales, Galdames, Muskiz) | Euskal Haizie | Resolución de concurrencia emitida. En espera de proyecto y Estud. Impacto Ambien. | 50 |
| **PE "LAS LLANAS"** **(**Gordexola, Zalla, Gueñes) | Euskal Haizie, S.L. | Resolución de concurrencia se publicará en los próximos días. | 36,6 |
| **PE "LARRAGORRI"** (ver "*Jesuri")* (Orozko, Laudio) | Grupo Capital Energy | Resolución de concurrencia emitida. | 22,5 |
| **PE PIASPE** (Azpeitia-Errezil-Zestoa) | Desarrollo Renovables Iberia PI SLU | Pendiente de Resolución de Concurrencia | 33 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **PE “TREKUTZ”** (Urretxu, Antzuola) | Grupo Cildal Energy | A la espera de presentar la documentación para la tramitación de la autorización administrativa previa. | 12 |
| **PE “BURUZAI”** (Azkoitia, Zumarraga, Urretxu) | GREEN CAPITAL DEVELOPMENT 65, S.L. | A la espera de presentar la documentación para la tramitación de la autorización administrativa previa. | 18 |
| **PE “EZKELZU”** (Zizurkil, Usurbil, Donostia) | GREEN CAPITAL DEVELOPMENT XLIV, S.L. | A la espera de presentar la documentación para la tramitación de la autorización administrativa previa | 18 |
| **PE “KARAKATE”** (Soraluze, Elgoibar) | GREEN CAPITAL DEVELOPMENT 135, S.L. | A la espera de presentar la documentación para la tramitación de la autorización administrativa previa | 9,6 |
| **PE “KASTILLO”** (Legutio) | Grupo Capital Energy | Prórroga para presentar documentación técnica hasta 18 de febrero de 2023 | 22,5 |
| **hPE “MIRITXA”** (Arratzu-Ubarrundia, Elburgo, Barrundia, Leintz-Gatzaga) | Grupo Capital Energy | Prórroga para presentar documentación técnica hasta 26 de febrero de 2023 | 27 |
| **PE LA MINORIA** | ALEIXENDAR | Anuncio de competencia | 40 |

**PARQUES FOTOVOLTAICOS GRANDES EN TRAMITACIÓN**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **FV “VITORIA-SOLAR 1”** (Gasteiz, Arrazua-Ubarrundia) | Indarberri | Realizada información pública. Consultas de la revisión de proyecto. | 50 |
| **FV “VITORIA-SOLAR 2”** (Gasteiz, Elburgo, Barrundia) | Indarberri | Realizada información pública. Consultas de la revisión de proyecto. | 50 |
| **FV LAMINORIA** | ALEXEINDAR | Realizada información pública. Consultas de la revisión de proyecto. | 40 |

## Igualdad, Justicia y Políticas Sociales

### EL GOBIERNO VASCO IMPULSA CON 4,79 MILLONES DE EUROS LAS ACCIONES DEL TERCER SECTOR EN EL AMBITO DE LA INTERVENCION SOCIAL CON PERSONAS Y FAMILIAS

A propuesta de la consejera de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales, Beatriz Artolazabal, el Consejo de Gobierno ha aprobado hoy una partida de 4,79 millones de euros para fomentar las actividades que realizará el tercer sector en el ámbito de la intervención social en 2023.

Los estímulos económicos que ofrece el Gobierno Vasco en este ámbito están regulados por el decreto 271/2012, de 4 de diciembre, y su fin es contribuir a la financiación de las actividades que desarrollan las entidades del tercer sector en relación con la promoción y protección de la autonomía personal e integración comunitaria de todas las personas.

Además de los servicios sociales, este tipo de acciones se enmarcan en el ámbito la inclusión social, la protección de la familia y la atención y protección a la infancia y la adolescencia. Igualmente, se dirigen a la integración de las personas inmigrantes, y en general, la interculturalidad, la atención y protección a las personas mayores, en situación de dependencia y discapacidad, y la libertad y diversidad afectivo-sexual.

Una primera línea de subvenciones contempla actividades de intervención social con personas, familias, grupos y comunidades; es decir, actividades orientadas a la promoción y protección de la autonomía personal e integración comunitaria de las personas, preferentemente aquellas que tiene un componente de experimentación o innovación. El Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales destinará a esta línea de subvenciones 3.743.480 euros en 2023.

Igualmente, una segunda línea se dirige a subvencionar actividades para el fortalecimiento de la acción voluntaria y la participación asociativa en la intervención social. Dentro de este apartado podrán recibir financiación actividades orientadas al incremento de la acción voluntaria, al desarrollo de la participación asociativa en el ámbito de la intervención social y, singularmente, a la construcción y mejora de entidades, redes o federaciones preferentemente de ámbito autonómico por parte de entidades dedicadas a la intervención social. Este capítulo está dotado con 599.000 euros.

Finalmente, una tercera línea de subvenciones se dirige a fomentar las actividades de gestión del conocimiento para la intervención social. Esta línea está dotada con 450.000 euros, y en ella se apoyan actividades orientadas a la producción y adquisición de conocimiento útil para la intervención social, tales como programas formativos, proyectos de investigación, elaboración y difusión de publicaciones, cursos y seminarios.

Las ayudas se podrán solicitar a partir del próximo 26 de enero.

**Igualdad, Justicia y Políticas Sociales**

## EL GOBIERNO AMPLÍA LA PLANTILLA DE PSICÓLOGOS DE LA ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA CON CUATRO DOTACIONES

El Consejo de Gobierno ha autorizado hoy la creación de cuatro dotaciones del puesto de psicólogo/a en la dirección de la Administración de Justicia dependiente del departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales. El equipo psicosocial saldrá así reforzado.

Esta ampliación responde a que la entrada en vigor de la Ley Orgánica 8/2021, de 4 de junio, de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia tiene impacto en los equipos psicosociales de la Administración de Justicia. Y es que, en la Disposición adicional primera de la Ley Orgánica referida a la dotación presupuestaria, se establece que “el Estado y las comunidades autónomas, en el ámbito de sus respectivas competencias, deberán dotar a los Juzgados y Tribunales de los medios personales y materiales necesarios para el adecuado cumplimiento de las nuevas obligaciones legales. Asimismo, se deberá dotar a los Institutos de Medicina Legal, Oficinas de Atención a las Víctimas, órganos técnicos que prestan asesoramiento pericial o asistencial y servicios sociales de los medios personales y materiales necesarios para el adecuado cumplimiento de los fines y obligaciones previstas en esta Ley”.

Además, en los últimos años ha sido necesario contratar personal en acumulación de tareas en los equipos psicosociales de la Administración de Justicia. Por todo ello, el Gobierno ha creado cuatro plazas nuevas como personal laboral: dos en Bizkaia, una en Gipuzkoa y otra en Araba.

Este incremento de plantilla cuenta con un informe favorable de la Dirección de Función Pública, a quien compete el análisis de necesidades estructurales existentes en las plantillas de personal.

**Cultura y Política Lingüística**

# EL GOBIERNO VASCO HA APROBADO EL ACUERDO POR EL QUE REPARTIRÁ ALGUNOS FONDOS MRR DEL ÁMBITO CULTURA A LAS DIPUTACIONES FORALES

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy el acuerdo por el que distribuye a las diputaciones forales los fondos que se reciban de la Administración General del Estado, con respecto a la revalorización de la industria cultural del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.

Los fondos provienen del Mecanismo de Recuperación Y Resiliencia (MRR) del programa "Next GenerationEU" cuya finalidad es contribuir a reparar los daños económicos y sociales inmediatos causados por la pandemia del COVID-19. El Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia de España recoge entre sus compromisos la "Revalorización de la Industria Cultural". Dos de las ayudas previstas en ese componente son las "Ayudas para ampliar y diversificar la oferta cultural en áreas no urbanas" y las ayudas para la "Digitalización, ampliación de la capacidad e interoperabilidad de sistemas de archivos de todo tipo, inventarios y registros de patrimonio histórico, incluido el audiovisual".

Respecto a las "Ayudas para ampliar y diversificar la oferta cultural en áreas no urbanas" el documento rector recoge que podrán ser gestionadas por las diputaciones forales. Así, en total, se transferirán 391.138 euros a las diputaciones forales de Álava (108.187 euros), Bizkaia (174.477 euros) y Gipuzkoa (108.474 euros).

En cuanto a las "Ayudas para la digitalización e impulso de los grandes servicios culturales" las diputaciones forales de los tres territorios históricos recibirán 27.483 euros para la digitalización, ampliación de la capacidad e interoperabilidad de sistemas de archivos de todo tipo, inventarios y registros del patrimonio histórico, incluido el audiovisual. Serán 9.161 euros para cada entidad.

La transferencia de estos fondos a las diputaciones forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa se acordó en la reunión del 9 de enero de HAKOBA, el órgano que reúne a responsables en materia de cultura del Gobierno Vasco, diputaciones y ayuntamientos, y el Consejo de Gobierno ha aprobado, hoy, el acuerdo que se suscribirá con las diputaciones forales.